EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALORREKO KONPROMISOA

A48119036 IFK duen Campezo Obras y Servicios-ek bere konpromisoa adierazten du emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera-berdintasuna integratuko duten politikak ezarri eta garatzeko, zuzenean edo zeharka sexuagatiko bereizkeriarik egin gabe, bai eta gure erakundean benetako berdintasuna lortzeko neurriak bultzatu eta sustatzeko ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna gure Politika Korporatiboaren eta Giza Baliabideen Politikaren printzipio estrategiko gisa ezarriz, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoak, printzipio horren definizioarekin bat etorriz.

Enpresa honen jarduera garatzen den eremu guzti-guztietan, hala nola hautaketan, sustapenean, soldata-politikan, prestakuntzan, lan eta enplegu-baldintzetan, lan-osasunean, lan-denboraren antolamenduan eta kontziliazioan, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzioan eta jarduketan, eta hizkuntzaren, komunikazioaren eta publizitatearen erabilera ez-diskriminatzailean, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa onartzen dugu, zeharkako diskriminazioa, hau da, itxuraz neutroak diren xedapen, irizpide edo praktika batek sexu bateko pertsona bat beste sexuko pertsonekiko desabantailan jartzen duen egoera bereziki kontuan hartuz.

Aipatutako printzipioak gauzatzeko, Berdintasun Plan bat ezarriko da, egungo egoera hobetzeko, eta dagozkion jarraipen-sistemak ezarriko dira, erakundean eta, hedaduraz, gizarte osoan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko.

Helburu hori betetzeko, berdintasun-batzordea izango da. Batzorde hori langileen ordezkariek eta enpresaren ordezkariek osatuko dute, Campezo Obras y Servicios-en berdintasunezko kultura ezartzearen alde egingo duen berdintasun-plan parte-hartzailea egiteko.

Donostian, 2021ko ekainaren 14ean